

Urola kosta Ibilbideak senderos

Red adscrita  Euskadi Aktiboa 

Temas

Actividad física.

Descripción

Bisitarien aldetik, nabarmen igo da mendi ibilbideak egiteko eskaera. Zalantzarik gabe, egungo bizi ohiturek eragina izan dute turismoan. Berebiziko garrantzia du ibilbideak behar bezala seinalizatuta egoteak. Azken finean, eskualdea bisitagarria da oso; jendeari atenzioa ematen baitio gure ingurune aberatsak.

Proiektu honen garapenaren bitartez mahai ganean jarriko da turismo sektorean beste aukera bat. Aldi berean, gure baliabideak aprobetxatuko ditugu eta gure herritarrengana gehiago hurbiltzeko modua eraginkorra izango da. Bisitariei turismorako gure ingurune zoragarriaz gozatzeko aukera bat gehiago eskaintzearekin batera, bertako bizilagunei bailarako ondarea eta hainbat jarduera ezagutaraziko dizkiegu. Bide batez, Urola Kostako herriarteko lotura indartuko dugu.

Proiektuaren baitan badago Urola Kostako herriak lotuz (Zumaia, Getaria, Zarautz, Orio eta Aia), mendi ibilbideak ezagutarazteko nahia. Are gehiago, ingurune horietan ditugun kultura baliabideak balorean jarri eta jendeari horiek ezagutaraztea ere bada egitasmoaren helburu. Hala, jendeak ***hainbat mendi martxa burutuz***, aukera paregabea izango du gure ingurunea ezagutzeko; bai kulturalki, bai ondare aldetik eta baita ere bertako jardueri buruz ere.

Contacto

Edurne Echeverria Zarrantz - 943890808 - turismoa@urolakosta.eus

Fecha de última actualización del recurso

10/04/2019

Situación actual del recurso

Activa

Localización

Lugar 18 toki ezberdinetan 0 20800 Eskualde osoa. Zarautz, Zumaia, Aia, Orio eta Getaria Zarautz Gipuzkoa Euskadi

España

